



GURE ALKATEEN ESKUBIDE TA EGINBEHARRAK

J. A. LOIDI

Ez dakit gaurko alkateen eskubide ta eginbeharrak noraino iristen diran, baina honela aitortzen zuen gure antzinako lege batek:

«Por cuento los Alcaldes ordinarios de la provincia tienen y ejercen de tiempo inmemorial, jurisdicción civil y criminal, alta y baja, mero y mixto imperio, en la primera instancia de todas las causas de los vecinos y moradores de su jurisdicción...». (Título III, capítulo V) (7-2-1588).

Badirudi hontaz, gure antzinako alkateak, herri-jauntxo haundi xamarrak zirala. Hori dala ta, edo hobeto esan, hontaz iñork zalantzarik izan ez zezan, bada-ezpadakoan ere, hona beste hau:

«La ejecución de los mandamientos de la Provincia y de los Alcaldes ordinarios y de la Hermandad de ella, se ha reconocido siempre muy necesaria y conveniente al bien público, y buena administración de la justicia; y porque ninguno se desmande en desobediencias y desacatos... de aquí en adelante cualquier persona, por poderosa que sea... que tomare las cartas... e mandamientos... de los Alcaldes... y aun les injuriaren en sus personas... que solo por ello, sea desterrado de la Provincia por dos años»... (Título III, capítulo XXII) 10-1-1484).

Eta hau guzia gutxi izan ez balitz bezela:

«Que... los Alcaldes ordinarios que al presente son y que en adelante fueren en las ciudades, villas y lugares de Guipúzcoa, conozcan (también) en... todas las causas pertenecientes a los cinco casos (Robos, fuerzas, fuegos, talas y cortas y asechanzas para herir o matar, o hirieren o mataren en caminos montes e yermos fuera de las villas cercadas y entre no vecinos de un lugar, o de noche...) ... que conocían los siete Alcaldes de la Santa Hermandad». (Título III, capítulo XXXI) (13-12-1688).

Gure alkateen eskubide horiek ikusita ez da harritzeko Aita Larramendi bere «Corografía de Guipúzcoa»n honela iardutea:

«Todos los alcaldes, cada uno en su villa y jurisdicción, andan con vara levantada, tienen asiento preeminente en los templos, administran justicia en audiencias verbales por sí solos, y en las otras por asesor, y de su elección, y les toca por fuero en primera instancia las causas civiles y criminales de su jurisdicción. Prenden, encarcelan, multan, castigan, destierran los delincuentes, según el proceso».

«Alkate» dalako izen itsusi hau, arabitarren izkuntzatik, beren «al cadiz» dalakotik hartua degu euskaldunok. Eta beren izkuntzan «epailea» ta «jaurlaria», «agintaria», esan nai omen du. Eta gure alkateak ere, beren herri ta herritarren eragilpeak, lege-egilpeak ez ezik, epailpeak ere izan behar zuten ziur aski. Berak zuten, beraz, beren gain indar gaitza baina, baita ere, Jaungoikoaren aurrean eta beren herritarren aurrean, erantzun behar gogorra.

Erantzun hontaz ari zan noski Aita Francisco Victor Ariztimuño, Arantzazuko Prantziskotarra (1798-1873), joan dan gizaldiko erdialdera gure herri hauetan barrena ojuka, berak zion bezela, Isai igarlearen antzera.

«Exalta vocem tuam!.... Otseguizu, ez issildu: trompeta baten eran eguzu deadar eta aditcera eman (...) nere erriari bere becatuac...».

Hona, zatika gaurkoz, egunen batean osorik argitaratu nai nukean, bere eskuz idatzitako hamar orrialdeko sermoi batean diona:

«Alferric oraingo cristauai ipiñico zaie beguien aurrean gure Religioaren santidadea, Jaungoikoaren leguea edo amar mandamentuac, eta Jesucristoren Evangelioa, eta esango zaie Religio, legue eta Evangelio oriezaz conforme vici bear duela. Gogorra da, eranzungo due, itz eguiteco modu ori, gogorra da

doctrina ori, eta guciaz escandalizatcen dira...».

«...Alferric esango zaie ez bacarric projimo guciac, baita ere etsaiac amatu bear dirala, gaitz eguiten digunari, gorroto digunari on eguiñ bear diogula, injuriac barcatu bear ditugula; escandalizatcen dira Evangelico doctrina onezaz eta gogorra dala, dioe, mandamentu ori ecin cumplitu lитеqueala...».

«Alferric esango zaio, tratante edo comerciante bati, gaiztoa dala tratu ori, tratu orretan irabaci duan gogoria lapurreta garbi bat dala...; gogorra da, esango du comerciante orrec doctrina ori, eta Elizaco jaquinsu eta Teologo guciac baño obeto daquiaela berac cer eta nola eguiñ bear dan tratua...».

«...Alferric da esatea oraingo cristau ascori, Religioac, Evangelioac eta Jaungoikoaren legueac aguincten digula garbiac izatea pensamentu, itz, eta obretan, ez escandaloric edo ejemplo gaiztoric ematea. Berac escandalizatcen dira doctrina onezaz, desprecio andi bat eguiten due, eta desprecio au dela mediante, secretoan edo beren bacardadean berac jaquitoinga due nola dabiltsan, beintzat publicoan ecusten dana da, escandalizatcen dirala Religio eta Evangelioaren santidadeaz beren conversacio eta itz eguiteco modu ciquin eta ichusiaquin; eta ez au bacarric, baicic plazan, calean, vide publicoetan demostracio eta quiñada desonestoak eguitara atreviteen dirala...; de bracelet nesca multillac dijoacela...; uju eta aja Jaungoikoaren ministroari...».

«...Alferric esango zaie oraingo cristauai santua dala gure Religioa, santuac Sacramentuac, santuac bere Misterioac, santuac gure Eliza santac celebratzen dituen funcioac... ? Nore ecusi du Erri onetan bertan Religioaren santidadearen contra ematen diran escandalaoce becelacoric? ?Nore ecusi du Elizaco funcio bitartean ostattu, canta jocuan, pelotan eta beste diversioetan ematen dan becelaco scandaloric?... «Eta, ¿nor izango da responsable Jaungoikoaren Tribunalean escandalo oiegatic? Errico Autoridadaec...».

Eta, nor zan, galdetzen det nik, gure herrietan, «erriko autoridadea»? Alkatea!!!! Ez al zioten bada esan:

«...que los Alcaldes ordinarios de la Provincia hayan jurisdicción para conocer, e librar todas, e cualesquier cuestiones, e debates, quier civiles, quier criminales que se movieren, e se denunciaren...» (Título III, capítulo XIX) (20-3-1357).

«E se denunciaren». Hona hemen Aita Ariztimuño-ren salaketa galantak. Entzun al zituen orduko alkateak? Egin al zuen ezer deabrukeri horiek zuzentzeko?

Baiezkoan nago. Gure lege berak zioten:

«Que los Alcaldes ordinarios, cada uno en su jurisdicción tengan cargo de escudriñar y hacer pesquisas a costa de los concejos... que tengan mucha diligencia, so pena de cada cien mil maravedís...» (Título XLI, capítulo II) (1527).

Eta ez det entzun sekulan gure herriko kalate batek ehun milla «maravedí» iñoi ordaindu duenik...